



IDIAZABAL GAZTAREN KOFRADIA
COFRADÍA DEL QUESO IDIAZABAL
ORDIZIA

ORDIZIAKO IDIAZABAL GAZTAREN KOFRADIA



X. GAZTAREN BILTZARRA, ORDIZIA 2025/10/04



UDAKO IKASTAROAK

SARRERA

2016an erabaki zuen Kofradiak gaztarekin eta artzaintza-munduarekin lotutako biltzar bat egitea, ordurako bestelako jarduera ugarien artean. Ia 10 urte igaro dira ordutik, eta X. edizio honetan, EHUko Udako Ikastaroen antolaketak duela urte askotatik eskaintzen digun estaldurapean betiere, eta artzainei galdetu ondoren, ospakizun berezi ludikoago bat egitea erabaki dugu, Biltzarrak normalean duen izaera didaktikoa alde batera utzi gabe.



BILTZARRAREN HELBURUA

Ordiziako Gaztaren Biltzarraren 10. edizioak aurreko bederatzi edizioetako helburu berak mantentzen ditu, hau da, oro har Lehen Sektoreari laguntzea artzaintzaren eta bere produktuen atalean, eta azken horien barruan, tradizioz Ordiziako Azoka Tradizionalari lotutako gazta.

Hala ere, oraingo honetan, eta sarreran adierazten den bezala, aurreko edizio guztietako ohiko helburu didaktiko hori alde batera utzi gabe, Kofradiak izaera ludikoago bat eman nahi izan dio ekitaldiari, Biltzarraren hamargarren urteurrena ospatzeko. Programatutako jarduerak ahalbidetzeko, Biltzarra **Enirioko Mankomunitateko** zelaietan egingo da, duela urte asko larreak ongarritzeko erabiltzen diren hegazkinak lurreratzeko eta aireratzeko erabilitako gunean, **Errekabeltzetik** gertu.

Jardueren zerrenda honako honen arabera garatuko da:

EGITARUA

ORDIZIAKO IDIAZABAL GAZTAREN KOFRADIAK antolatuta, **Enirioko Mankomunitateko** zelaietan, **Errekabeltzetik** gertu, **X. GAZTAREN BILTZARRA** urriaren 4an egingo da, goizez, eta horren garapena ondoren zehazten dena izango da.

9:45ean, Biltzarraren inaugurazioa. Idoia Otaegiren eskutik, **EHUko Udako Ikastaroen zuzendaria**.



10:00etan, Lehen Hitzaldia. Iker Elosegiren eskutik, **Euskal Herriko Laborantza Ganbarako koordinatzailea**, Biologiako eta Agronomiako ikasketaduna. Bere hitzaldia: **Talde lanaren esperientzia Iparraldean. Sasiartalde proiektua**. Sasi ardi arrazaren berreskurapenean, Sasiartalde Elkarateak garatzen duen lanaz arituko da. Denboran Euskal Herriko etxalde ainitzetan zen, arraza honekin Iparraldean lan kolektibo baten bidez baino, ekonomiko bat ematen lortzen da.

10:30ean, Bigarren Hitzaldia. Jesus Mari Lasarteren eskutik, **INTIAko teknikaria, nekazaritza-ustiatagietan, nekazaritzan eta abeltzaintzan belaunaldi-ordezkapenean aditua**. Bere hitzaldia: **Hobekuntzak sarrietan eta txaboletan Urbasan**. Nafarroako Gobernua gaur egun inguru horretan egiten ari den lanak azalduko ditu.

11:00etan, Josetxo Zufiaurreren, Joxemiel Barandiaranen kolaboratzaile izandakoaren, **Artzain Jokoak** bideoaren aurkezpena. Bertan, Euskal Herriko mendietan artzain eta abeltzainek jokatzen zituzten jokoei buruzko ikerketek arituko da: Saltos (Saltarri), Pilota Jokuk, Anikote, Korrika Jokuk, Bolok (Bola lekuk), etab.



11:15ean, Lehiaketa.

Euskal Herriko hainbat lekutatik iritsitako taldeen artean, lehiaketak egingo dira jarraian zerrendatzen diren probetan:

- 1.- Artantxu baten pisua zein den asmatzea.
- 2.- Bi gaztaren pisua asmatzea.
- 3.- 5 ardi pisuaren arabera sailkatzea.
- 4.- Gutxi gorabehera 100 ardiko artalde batean, artaldekoa ez dena aurkitzea.
- 5.- Ardi-talde bat hortzeriaren bidez bereiztea.
- 6.- Pilota Joku partidua. Joko bakoitzaren puntuazioak eta arauak probak egin aurretik azalduko dira.

14:30ean, BAZKARIA.

Menua: **Ajoarriero, Moxal errea eta postrea.**

OHARRA. - Jarduerak artzainek egiteko dira. Bazkarian parte hartu ahal izango dute bai beraiek eta bai eurekin joaten direnek ere, betiere Kofradiako telefono hauetan whatsapp bidez izena ematen badute: 676118080 eta 688874333.

- 1.- Ekitaldia antolatzeko zailtasun logistikoak direla eta, izena eman gabe bertaratzen diren pertsonak ezin izango dute bazkarian parte hartu. Izena emateko epea irailaren 25an amaituko da.
- 2.- Ekitaldia egin ondoren, parte-hartzaileek hondakinak garbitzen eta biltzen lagunduko dute, eremua Biltzarra egin aurreko baldintza berberetan gera dadin.